



2019_{KO} OTSAILAREN 20_{TIK} 21_{ERA}

SUSTAINABLE URBAN MOBILITY

"XXI. Mendeko hiriak mugitzen"

BILBAO, EUSKADI, ESPAINIA



HIRI-MUGIKORTASUN JASANGARRIA

TESTUINGURUA

XXI. mendean, hiriak protagonista izatera iritsi dira mundu osoan; izan ere, hirietan bizi da biztanleriaren % 55etik gora eta bertan metatzen dira jarduera ekonomiko gehienak, munduko baliabideen eta energiaren zati handi bat kontsumitzeaz gain.


Testuinguru honetan, pertsonen eta salgaien mugikortasuna hiriek aurrean duten erronkarik garrantzitsuenetako bat da. Horregatik, ezinbestekoa da hiri-mugikortasunerako planak eta proiektuak prestatu eta abian jartzea, herritarren mugikortasun eskakizun berriei erantzuteko eta, aldi berean, garraioak ingurumenean eta gure hirietako bizi-kalitatean duen inpaktua murrizteko. Halaber, mugikortasuna da lurraldeen hazkundera eta lehiakortasuna sustatzen dituen ardatz estrategikoetako bat eta, ondorioz, garapen jasangarriko helburuekin bat etorri behar du.

Azken batean, hiri-inguruneek hiri-mugikortasun jasangarria bermatzen duten sistema berriak garatu behar dituzte, betiere hiri-eragile publiko eta pribatu anitzen partaidetza sustatuz eta ikuspuntu integral batetik. Garapen prozesu horretan honako alderdiak hartu behar dira kontuan: trafikoak sortutako ingurumen-kutsadura eta kutsadura akustikoa, energia kontsumoa, espazio publikoaren erabilera, teknologia berrien agerpena, zerbitzuen eta garraio bideen berrikuntza, paradigma aldaketa, inklusioa, segurtasuna eta irisgarritasuna



Mugikortasuna funtsezko faktore estrategikoa da hirien garapen jasangarria bultzatzeko

ESTRATEGIA INTEGRALAK



HELBURUA

Nazioarteko topaketa honen helburu nagusia mundu osoan hausnarketa sustatzea da mugikortasunaren etorkizunaren inguruan eta horrek XXI. mendeko hirien Garapen Jasangarriko Helburuetan duen inpaktuaren inguruan.

| Hiri jasangarriagoen eraikuntzak dakartzan erronkak aztertu eta eztabaidatzea eta erronka horiek garapenerako aukera nola bihurtu hausnartzea.

| Mugikortasun eredu jasangarria eta adimentsua eraikitzen duten eragile publiko eta pribatu guztien elkarrekintzarako eta eztabaidarako espazio bat eskaintzea.

| Hiri-mugikortasun jasangarriaren arloko jardunbide egokiak eta ekimen berriak partekatzea.

| Hiri-ingurune bakoitzaren beharretara egokitutako mugikortasun jasangarriaren gakoak inguruko gomendioak definitzea.

| Mugikortasun jasangarriago baten garapena lortzeko xedearekin enpresa eta startup liderrek proposatutako teknologia eta berrikuntza garrantzitsuenak ezagutzea.

PARTE- HARTZAILEAK

TOKIKO GOBERNUAK ETA NAZIOARTEKO ERAKUNDEAK

Mundu osoko tokiko gobernuetako eta nazioarteko erakundeetako ordezkariak, mugikortasun jasangarriaren ikuspuntutik hiri-arazoei irtenbide berritzaileak emateko estrategien garapenean funtsezko eginkizuna dutenak.

ENPRESA LIDERRAK ETA STARTUP-AK

Garraio eta hiri-mugikortasun jasangarriaren sektorean liderak diren startup eta enpresetako ordezkariak, behar eta erronka berriei erantzuna ematen dieten irtenbideak eskaintzeko gai direnak.

ZENTRO TEKNOLOGIKOAK ETA UNIBERTSITATEAK

Hiri-mugikortasun jasangarriaren arlo barruan, hainbat ikerketa-ildotan lanean ari diren ezaguera-zentroetako ordezkariak: mugikortasun modu berrietatik hasi eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien (IKT) aplikaziora.

ZEHARKAKO ARDATZAK

Kongresuan jorratuko diren gairik interesgarrienak
hiru zeharkako ardatz nagusiren inguruan antola
daitezke.

ESTRATEGIAK ETA POLITIKA PUBLIKOAK

MUGIKORTASUN
JASANGARRIAGO
BATERAKO



IRTENBIDEAK SORTZEKO BEHARREZKO TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA

MUGIKORTASUN
JASANGARRIAGO BATERAKO

GARAPEN SOZIOEKONOMIKO- RAKO AUKERAK



ESTRATEGIAK ETA POLITIKA PUBLIKOAK

MUGIKORTASUN JASANGARRIAGO BATERAKO

Ingurumenarekin, gizartearekin, politikarekin eta ekonomiarekin lotutako pertsonen zein salgaien mugikortasunaren inpaktuak aintzatesteari esker, hiri eta lurraldeak eredu eraginkor eta jasangarriagoetara igarotzeko trantsizioa azkartzen ari dira, betiere energia berrien erabilera abiapuntu hartuta.

Ondorioz, ezinbestekoa da ezagutzea gaur egun, administrazio publikoetatik, toki-ingurunean hiri-mugikortasun jasangarrirako eredu berriak sustatzeko xedearekin abian jartzen ari diren proiektuak. Proiektu hauek hainbat alderdi hartzen dituzte barne: gizarte-garapen inklusiboa, hiri-plangintza, osasuna, segurtasuna, ingurumena, teknologia eta berrikuntza, besteak beste.



GOBERNANTZA ETA HIRI PLANGINTZA, ARAUDIA ETA ERREGULAZIOA

Berrikuntza oinarri hartuta lehiakortasuna sortzea, hauei esker:

- Herritarren partaidetzaren, kontsumoaren eta ekoizpenaren inguruko politika jasangarriak abian jartzea.
- Lurzoruen erabileraren definizioa.
- Ibilgailu ez kutsatzaileen fabrikazio eta erosketarako pizgarriak.
- Nazioarteko lankidetzazabaltzea.



HIRI INKLUSIBOA

Hiri irisgarri eta integratuak sortzea, hauei esker:

- Hiri-garraioaren diseinua.
- Espazio publikoaren erabilera eraginkorra.
- Mugikortasun partekatuen eta lankidetzako mugikortasunaren sustapena.



KLIMA ALDAKETARAKO ETA GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUENTZAKO MUGIKORTASUNA

Mugikortasunak hirietan duen inpaktua murriztea, hauei esker:

- Kutsadura atmosferikoa murriztea.
- Energia alternatiboak sustatzea.
- Herritarren ingurumenarekiko konpromisoa sustatzea.
- Ibilgailuen isurpenen inguruko sistemak abian jartzea.



OSASUNA ETA SEGURTASUNA

Mugikortasunak herritarren osasunean duen inpaktua murriztea, hauei esker:

- Kutsadura akustikoa murriztea.
- Airearen kalitatea areagotzea
- Trafiko istripuak ekiditeko estrategiak.
- Garraio alternatiboak sustatzea.

IRTENBIDEAK SORTZEKO BEHARREZKO TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA

*MUGIKORTASUN JASANGARRI
BATERAKO*

Hiri-mugikortasun jasangarriak aliatu estrategiko aparta aurkitu du informazioaren eta komunikazioaren teknologiengan (IKT).

IKTen eragina agerikoa da mugikortasunaren balio-kate osoan zehar, bereziki honako alderdietan: energien hornidura, lankidetzako ekonomia, softwarearen bilakaera, eraldaketa teknologien ekosistemaren garapena (IoTSP, errealitate birtual eta areagotua, blockchain, fabrikazio gehigarria, etab.) eta mugikortasunaren jasangarritasuna bermatzen duten beste hainbat funtzionalitate.





MUGIKORTASUNERAKO ENERGIA ETA KARGA SISTEMA BERRIAK

- Elektrizitatea.
- Hidrogenoa.
- Bioerregaiak.
- PGL.
- Gas naturala.
- Ibilgailu elektrikoetarako bateria eta karga azkarrak.



INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK

- Bidaiei zuzendutako zerbitzuak:
- Informazioa eta entretenimendua ("infotainment").



I+G+b MUGIKORTASUNEAN

Ibilgailu autonomoak:

- Ikusmen sistemak eta bideak antzemateko sistemak.
- Salgaien hiri-banaketarako sistema adimentsuak (DUM).



SMART CITIES (HERRITARREN PARTAIDETZA)

- Smart parking.
- Smart ticketing.



GARAPEN SOZIOEKONOMIKORAKO AUKERAK

Hiri-mugikortasun jasangarria lortzeko xedea duten ekintzak, aldi berean, lurraldeen garapen ekonomiko eta sozialerako onuragarriak dira ere, eskakizun berrietara egokitzeko gai baitira.

Garapen ekonomikorako onuren artean aurkitzen dira, esaterako, mugikortasun eredu berrien zerbitzura dauden energien eta teknologien inguruko merkatu berriak. Halaber, eragin biderkatzaile bat sortzen da balio-kate osoan zehar, garraioen fabrikaziotik eta azpiegituren eraikuntzatik hasita eta mugikortasun zerbitzuen eskaintzara iritsi arte, hala nola carsharing zerbitzuak, I+G+b prozesuak ahaztu gabe. Bestalde, herritarren bizi-kalitatearen hobekuntza eta lanpostu berrien sorreran oinarritutako onura sozialak ere sortzen dira.



PARADIGMA ALDAKETAK ETA MUGIKORTASUN EREDU BERRIAK

- Garraioa eta logistika.
- Salgaien hiri-banaketaren (DUM) erronkak.
- MaaS.



MUGIKORTASUNAREN ONURA SOZIOEKONOMIKOAK



STARTUP-AK ETA EKINTZAILETZA

- Mugikortasunaren inguruko negozio-eredu berriak.



EUSKALDUNA JAUREGIA



Sustainable Urban Mobility Congress Bilbao 2019 kongresua Euskalduna Jauregian burutuko da. Kongresu-zentro hau mundu osoan ezaguna da, bai eskaintzen dituen zerbitzuengatik eta baita izan ditzakeen erabileren moldakortasunagatik ere. Eraikin berezi honen arkitektura Bilbok jasandako eraldaketaren isla da eta hiriaren abangoardiako izaera berritzailearen adierazgarria ere bada.

Euskalduna Jauregia Bilboko erdigunean aurkitzen da, aireportutik eta portutik 20 minutura, eta errepide eta trenbide nagusiekin ongi komunikatuta. Erraz irits gaitezke bertara oinez hiriko hotel eta toki nagusietatik, eta baita garraio publikoko sistema erabilia ere (metroa, tranbia eta autobusa). Halaber, 475 ibilgailurentzako aparkalekua dauka.



Tranbia: Euskalduna geltokia

Autobusa:

- 28. zenbakia, Jesus Bihotza geltokia
- 56. zenbakia, Kale Nagusia 90 geltokia
- 62. zenbakia, Jesus Bihotza 1 geltokia

Metroa: Santimami geltokia, Sabino Arana irteera

ANTOLATZAILEAK:



BABESLEAK:

URREA



ZILARRA



BRONTZE



LAGUNTZAILEAK:



MEDIA PARTNER:

